

Todas las decisiones son lícitas, pero no eficaces



Carlos GIL ZAMORA
Analista cultural

Defensor acérrimo de las adaptaciones, revisiones, aplicación de nuevos puntos de vista a todas las obras de la literatura dramática, podremos considerar que no siempre todas las decisiones, por muy atractivas que parezcan, son eficaces, aportan, mejoran o simplemente distorsionan o colocan a las obras en otro lugar del que habían estado o se encontraban mejor amparadas por el conjunto en su

estreno. En los dos casos se trata de obras escritas para ser interpretadas por actores varones y así se hicieron, pero que en nuevos montajes eran interpretados por mujeres. Hace unas pocas semanas vimos en Antzoki Zaharra de Donostia "Cantando bajo las balas" de Antonio Álamo, que retrata la figura del general Millán Astray y que estrenó el fallecido Adolfo Fernández, con la interpretación majestuosa de Ane Gabarain, pero no encontré en la repre-

sentación presenciada nada más que distracción, me apartaba del foco principal. Puede ser un problema del que mira. Pero hace unos días vi una versión de "El veneno del teatro" de Rudolf Sirera, interpretado por dos mujeres, y me pareció que no aportaban nada, es más, restaban por cuestiones estéticas y de acciones superpuestas muy forzadas. No es suficiente tener una buena idea, sino que hay que plasmarla de manera eficaz en escena.

«Itzala. Gaixotasun baten kronika» liburu intimoa ondu du Maixa Zugastik

Liburu berria plazaratu du Maixa Zugastik, "Itzala. Gaixotasun baten kronika" (Erein). Duela hogeitau urte baino gehiagotik duen gaixotasunaren inguruan hausnarketa egin eta egunerokoa nola bizi duen kontatu du obra berrian.

Nerea LAUZIRIKA | DONOSTIA

Itzala, definizioari erreparatuta, babesgune izan ohi da; espetxeari deitzeko ere erabiltzen da, ordea. Bigarren adiera negatiboago horren antza handiagoa dauka Maixa Zugastik eman dionak, gaixotasunari beste izen bat emateko baliatu baitu. "Itzala. Gaixotasun baten kronika" liburuaren tituluak irakurleak barruan aurkituko duenaren sinopsi lana ezin hobeto egiten du, izan ere, idazle tolosarrak duela bi hamarkadatik baino gehiagotik bizikide duen gaitzaren gainean dihardu Ereinen eskutik argitaratu berri duen obran.

Autoreak Uxue Razquin editoreak lagunduta aurkeztu zuen lana atzo Donostiako Udal Liburutegian. Razquinek azaldu zuen liburu ez-fikziozkoa dela, idazleak bere gaixotasunaz hitz egiten duelako. Hala ere, Zugastik bizitzan «aterpe» izan duen literaturak berebiziko garrantzia du obran, itzalaren iluntasun horretan «itsasargi» zaizkion elementuak ere badituelako hizpide.

Editorearen hitzetan, testu «hibrido» da, uztartzen dituen eguneroko bizipenak eta saiakeraren antzekoagoak diren pasarteak. Ez-fikziozko lanetan kontatu beharreko hori nola kontatu «erronka» izaten dela azaldu zuen Razquinek eta, hala ere, Zugastik ahots propioz idaztea lortu duela.

Idazleak bi testuren bidez aurkeztu zuen lan berria: bata, liburuaren ontzen hasi ordu-

EZ-FIKZIOZKOA

Idazle tolosarrak bi hamarkadatik gora bizikide duen gaitzaren gainean dihardu Ereinen eskutik argitaratu berri duen obran.

LITERATURA

Zugastik bizitzan «aterpe» izan duen literaturak berebiziko garrantzia du obran, itzalaren iluntasun horretan «itsasargi» zaizkion elementuak ere badituelako hizpide.



Maixa Zugastik, liburu berriaren aurkezpenean. Jagoba MANTEROLA | FOKU

ko idatzia; bestea, hilabete honetan bertan sortua. Idazki horien bidez azaldu zuen urte luzez gaixo egonagatik ere berrikuntzak ekarri dizkiola azken boladan gaixotasunak, negatiboak, hori bai, beretzat bizitzaren oinarri sendoeneko bat duen literatura ere zailtzan jartzeraino.

«Nahi eta ezina» onartzeaz ere hitz egin zuen aurkezpenean, betiere kezkarri beraz jabetzeko abagunea eman gabe, baina azpimarratu zuen

egun bakoitza erronka dela berarentzat.

Halaber, azaldu zuen lehen aldía dela bere buruaz horren zuzen idazten duena eta, Razquinek berak proposatu arte, bururatu ere ez zitziola egin horrelakorik egiten hastea. Hori dela eta, ez du terapia gisa hartu, literaturak zein hausnartzeak bizitzen laguntzen diotela aitortu badu ere.

Poema bat, hiru kolpetan
Rosalia de Castro idazle gali-

ziarraren poema bat dakar liburuak, Inazio Mujikak itzulia, hura ere gaixorik bizi izan baitzen. Zugastik hiru zatitan banatu du olerkia, berarentzat ere egunak hiru zati izan ohi dituelako, «ia-ia, egunero bizitza bat bailitzan».

Horrela, liburuaren bidez egin duen hausnarketa lagungarri izan zaiola azaldu zuen aurkezpenean, gaixotasunak, hots, itzalak, sortzen dion «iluntasun hori arindu nahian, ondo bizitzeko».